

Irakasleen hizkuntza-prestakuntza hobetzeko mintegia

Ikastetxea eta familietako hizkuntza-transmisioa

HELBURUA

Ikastetxeetan **familietako hizkuntza-transmisioa** (FHT) indartzeko egiten denaren eta egin daitekeenaren inguruan gogoeta egitea.

METODOLOGIA

Mintegia gogoeta egitera bideratuta dago. Guztion parte hartzearen bidez norberaren eta taldearen hausnarketak bilatuko ditugu. Talde dinamikan oinarrituko gara taldekideak gustura eta eroso sentiarazten ahalik eta gogoeta eta informazio gehien ateratzeko. Horretarako, nagusiki, bi dinamika mota erabiliko ditugu: girotze teknikak eta azterketa teknikak.

EGITURA OROKORRA:

Hamar orduko mintegia izango da bost saiotan banatuta:

| | Hitzaurrea | Giotzea | | Gogoeta | |
|---|---------------------------------|--|--|---|---|
| | | Helburua | Teknika | Helburua | Teknika |
| 1 | Papardoaren zortea | Mintegi, dinamizataile eta parte hartzaileen aurkezpena egitea | Gi.1. Azalpenak eta txostena Gi.2. Nire objektu kuttuna | FHT-ri buruzko norberaren usteak azaltzea | Go.1. Arte erakusketa |
| 2 | Xarma, arma, armiarma... | Talde giroa lortzea talde hausnarketarako | Gi.3. Animaliak I: bikote jolasa | FHT-ri buruzko taldearen usteak azaltzea | Go.2. Animaliak II: familia jolasa |
| 3 | Amona zabuan | Taldekideak talde lanerako prestatzea | Gi.4. Lurrikara Gi.5. Igarkizun txapelketa | FHT indartzeko eskolak egin eta egiten duen lana azaltzea eta aztertzea | Go.3. Harremanen mapa Go.4. Roll playing |
| 4 | Hitzak ez du antzik jaboiarekin | Ideiak sortzeko, hausnartzeko eta proposatzeko giroa sortzea | Gi.6. Kooperazio jolasa: aulki jolas kooperatiboa | FHT indartzeko eskolak egin beharko lukeen lanari buruz hausnartzea I | Go.5. Ideien ekaitza musikala Go.6. Bideoa |
| 5 | 99 piropo poltsikorako | Prozesuaren balorazioak eta ondorioak ateratzea | Gi.7. Bizkar gainean | FHT indartzeko eskolak egin beharko lukeen lanari buruz hausnartzea II | Go.7. Gutuna |

EGITURA ZEHATZA:

1. SAIOA

| Hitzaurrea | |
|---|---|
| Papardoaren zortea Kirmen Uribe (berria. 2007/05/26) | |
| Girotzea (Helburua: Mintegi, dinamizatzaile eta parte hartzaileen aurkezpena egitea) 30´ | |
| Gi.1. Mintegi eta dinamizatzailearen aurkezpena | Azalpenak eta txostena |
| Gi.2. Parte hartzaileen aurkezpena | Nire objektu kuttuna: dinamizatzaileak objektu ezberdinak eramango ditu. Taldekideek hauetako bat aukeratu beharko dute. Objektua esku artean dutela, euren izen abizenak eta aukeraturakotako objektuaren zergatia helarazi beharko diete gainontzeko taldekideei. |
| Gogoeta (Helburua: FHT-ri buruzko norberaren usteak azaltzea) 1:30´ | |
| Go.1 Nola azalduko nuke FHT zer den? Zer garrantzia du? Zer iritzia dut? | Arte erakusketa: I. Gelan arte erakusketa osatuko dugu. Taldekideek, nahi duten teknika erabiliz (collage, margoa, bertsoa...), arte-lan bana egin beharko dute. Dinamizatzaileak arte-lan hauetarako gaia jarriko die (<i>familietako hizkuntza transmisioa</i>) eta hainbat hitz klabe edo galderak egingo dizkie lana errazteko. Arte lana bukatuta bost lerrotako azalpena idatzi beharko dute adierazi nahi izan dutena azalduz. II. Arte-lanak hormetan jarriko ditugu eta erakusketa ikusteko denbora utziko dugu. III. Borobilean eserita bakoitzak idatzitakoa azalduko du eta denon artean gaiaren inguruko gogoeta egingo dugu. |

2. SAIOA

| Hitzaurrea | |
|---|---|
| Xarma, arma, armiarma... Andoni Egaña (Argia 2007-02-19) | |
| Girotzea (Helburua: Talde giroa lortzea talde hausnarketarako) 15´ | |
| Gi.3. Bikoteen osaketa | Animaliak I (Bikote jolasa): taldekide bakoitzari abere baten izena esango diot. Ondoren begiak itxita eta norberaren aberearen soinua imitatuz bikoteak osatu beharko dituzte. Adibidez: oilarrak oiloa bilatu beharko du, behorrak zaldia... |
| Gogoeta (Helburua: FHT-ri buruzko taldearen usteak azaltzea) 1:15´ | |
| Go.2 Zein da FHT gaiaren inguruan gure iritzia? | Animaliak II (Familia jolasa): I. Aurreko ariketan sortutako bikoteei aurreko saioan agertu ziren azalpenak idatziz banatuko dizkiegu. Azalpen horiek guztiak batuta hiru esalditan FHTri buruzko talde ondorioak osatuko dituzte. II. Bikoteak laukoteak bihurtuko ditugu. Horretarako abere familiak osatuko dituzte. Adibidez, hegaztien laukotea (oilarra-oiloa bikotea ahate emea eta ahate arrarekin batuko dira), ugaztunen laukotea... Aurretik bikoteka egindako lana errepikatuko dute bikote bakoitzak ateratako ondorioak beste bikotearekin adostuz. III. Talde osoa batuta lana errepikatuko dute. |

3. SAIOA

| | |
|--|---|
| Hitzaurrea | |
| Amona zabuan Anjel Lertxundi (berria 2005-06-08) | |
| Girotzea (Helburua: Taldekideak talde lanerako prestatzea) 30' | |
| Gi.4. Taldeen osaketa | Lurrikara: Hiru hirukote osatzeko mugimendu jolas hau erabiliko dugu. |
| Gi.5. Talde lanerako prestaketa | Igarkizun txapelketa: Osatutako talde bakoitzari hiru igarkizun idazteko eskatuko diogu. Ondoren guk botatako igarkizunekin eta beraiek dituzten igarkizunekin Igarkizunen Txapelketa egingo dugu. Horretarako koloretako txartelak erabiliko ditugu: gorria (dinamizatzailearen igarkizun bat asmatu), urdina (zure igarkizun bat beste talde bati esan), horia (txanda pasa) eta abar. Talde irabazleak Go.4 dinamikan aukeraketa egiteko lehentasuna izango du. |
| Gogoeta (Helburua: FHT indartzeko eskolak egin eta egiten duen lana azaltzea eta aztertzea) 2:00' | |
| Go.3 Gurasoekin noiz eta nola ditugu harremanak? | Harremanen mapa: I. Talde bakoitzak zerrendatu beharko ditu noiz, non eta nola izaten dituzten harremanak gurasoekin. Kontutan hartu beharko dute harremanak ez direla beti aurrez-aurrekoak izaten: gutunen bidez, haurren bitartez... II. Ondoren paper handi batean harreman mapa osatuko dugu ateratako informazio guztiarekin. |
| Go.4 Zer egiten da ikastetxean FHTren inguruan? Zer egin da? Nola heltzen zaio gai honi? Non hitz egiten da honi buruz? Zergatik ez da tratatzen? | Roll playing: I. Taldeka egoera ezberdinak antzeztu beharko dituzte. Egoera horiek aurreko dinamikan ateratako gauzetan oinarrituta egongo dira. Talde bakoitzak egoera bat aukeratuko du eta dinamizatzaileak egoera horren inguruko ohiko adibide batzuk emango dizkie. II. Antzezpenak ikusi ondoren gaia tratatzeko moduaren inguruko hausnarketa egingo dugu. |

4. SAIOA

| | |
|--|--|
| Hitzaurrea | |
| Hitzak ez du antzik jaboiarekin Bernardo Atxaga | |
| Girotzea (Helburua: Ideiak sortzeko, hausnartzeko eta proposatzeko giroa sortzea) 15' | |
| Gi.6. Taldearen prestaketa | Kooperazio jolasa (aulki jolas kooperatiboa) Ohiko aulki jolasa egingo dugu baina aldaera kooperatiboa erabiliko dugu |
| Gogoeta (Helburua: FHT indartzeko eskolak egin beharko lukeen lanari buruz hausnartzea I) 1:45' | |
| Go.5. Zer egin daiteke eskolan? | Ideien ekaitza musikala: I. Taldekideak taldetan banatuko dira, eta talde bakoitzak kolore bat izango du. Gelako hormetan "harreman mapa" jarriko dugu eta bertan agertzen den gai bakoitzak kolore bat izango du. II. Musika jarriko da, eta musikak irauten duen bitartean, kartulinak bete beharko dituzte proposamen eta ideiekin. Dinamizatzaileek zenbait ideia eta adibide emango dizkiete, lagungarri. III. Bakoitzak, gutxienez, ideia edo proposamen bat idatzi beharko du. Azkenik, kartulinetan idatzitakoak aztertuko dira. |
| Go.6. Proposamenak | Bideoa: Hitzak ez du antzik jaboiarekin Bideoa ikusiko dugu eta ondoren tresna honi buruzko hausnarketa egingo dugu. |

5. SAIOA

Hitzaurrea

99 pirolo politikorako
Estitxu Eizagirre

Gogoeta (Helburua: FHT indartzeko eskolak egin beharko lukeen lanari buruz hausnartzea II)

1:30'

Go.7. Zer behar dugu?

Gutuna

Taldekideek gutun bana idatzi beharko diete Buruntzaldeko teknikariei FHTrako behar duten guztia azalduz. Bertan, bi behar mota agertu beharko dituzte: barruko beharrak eta kanpoko laguntza.

Girotea (Helburua: Prozesuaren balorazioak eta ondorioak ateratzea)

30'

Gi.7. Ebaluazioa

Bizkar gainean

- I. Taldekide guztiek ideia zaparrada egingo dute, bertan, mintegia ebaluatu ahal izateko kontuan hartu behar dituzten aldagaiak aipatuz.
- II. Ateratako ideia horiek sailkatuko ditugu eta denen artean ebaluazioa burutzeko kontuan hartu beharreko aldagaiak adostuko dira.
- III. Taldekide bakoitzari orri bat emango zaio eta bertan adostutako aldagaiak baloratu eta idatzi beharko ditu.
- IV. Orria bizkarrean itsatsiko dute eta gelan zehar ibiliko dira gainontzeko taldekideek idatzi dutena irakurtzen.
- V. Ahoz aipatuko dira balorazioak